

LEY 22/1988, DE 28 DE JULIO, DE COSTAS

(Edición cerrada al 31 de diciembre de 2009)

EXPOSICION DE MOTIVOS

I

España tiene una gran longitud de costa, aproximadamente 7.880 kilómetros, de los que el 24 por 100 corresponden a playas, con un patrimonio público de unas 13.560 hectáreas, valioso por las grandes posibilidades que ofrece, pero escaso ante las crecientes demandas que soporta, y muy sensible y de difícil recuperación en su equilibrio físico

Nuestra costa está afectada, como ocurre en otros países del mundo, por un fuerte incremento de la población y la consiguiente intensificación de usos turístico, agrícola, industrial, de transporte, pesquero y otros

En efecto, en la orla litoral, de una anchura de unos cinco kilómetros, que significa el 7 por 100 de nuestro territorio, la población española, que era a principios del presente siglo del orden del 12 por 100 de la población total, es actualmente alrededor del 35 por 100 de ésta, con una densidad cuatro veces superior a la media nacional.

Esta proporción llega a su vez a triplicarse estacionalmente en ciertas zonas por la población turística, ya que el 82 por 100 de ésta se concentra en la costa

En resumen, puede decirse que se está produciendo un acelerado proceso de traslado de población desde las zonas interiores hacia el litoral, de forma que alrededor de un 40 por 100 de la costa española ya está urbanizada o tiene la calificación de urbanizable, un 7 por 100 de ella está dedicada a instalaciones portuarias, un 3 por 100 a instalaciones

UZTAILAREN 28KO 22/1988 LEGEA, KOSTALDEEI BURUZKOA

(2009ko abenduaren 31n itxitako argitaraldia)

ZIOEN AZALPENA

I

Espainiako kostaldeak luzera handia du, gutxi gorabehera, 7.880 kilometrokoa. Horietatik 100eko 24 hondartzei dagokie, eta, beraz, ondare publikoa 13.560 hektareakoa da. Ondare baliotsua da benetan, aukera handiak eskaintzen dituelako. Alabaina, eskaerak gero eta gehiago direnez gero, urri geratzen da; gainera, hauskorra da oso, eta haren oreka fisikoa berreskuratzea oso zail gertatzen da.

Munduko beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala, gurean ere, biztanleria asko hazi da, eta, ondorenez, turismo-, nekazaritza-, industria-, garraio- eta arrantza-erabilerak, bai eta bestelako erabilerak ere, areagotu egin dira, eta horrek guztiak eragina izan du gure kostaldean.

Espainiako itsasertzak, gutxi gorabehera, bost kilometroko zabalera du, eta hori gure lurraldearen 100eko 7 da. Bada, Espainiako biztanle guztien 100ko 12 itsasertz horretan bizi zen mende honen hasieran; gaur egun, ordea, Espainiako biztanle guztien 100ko 35 bizi da itsasertzean. Estatu osoari dagokion batez besteko dentsitatea lau aldiz gehitzen da, beraz, itsasertzean.

Are gehiago, turismoaren eraginez, proportzio hori hirukoiztu egiten da gune eta aldi jakin batzuetan, turisten 100eko 82 kostaldean batzen delako.

Laburbilduta, esan daiteke biztanleak barruko guneetatik itsasertzera lekuz aldatu direla, eta prozesu hori azkarra izan dela. Horrela, Espainiako kostaldearen 100eko 40, gutxi gorabehera, dagoeneko urbanizatuta dago, edo, behintzat, urbanizagarri moduan kalifikatu da. Horretatik 100eko 7an, portu-instalazioak daude; 100eko 3an, industria-instalazioak;

industriales, y un 8 por 100 a usos agrícolas, no teniendo aún el 42 por 100 usos claramente definidos o irreversibles.

A esta situación se ha llegado, en general, en actuaciones inconexas, sin la necesaria coordinación entre la legislación del dominio público marítimo y la del suelo, sin tener en cuenta la interacción tierra-mar, ni la necesidad de establecer medidas que garanticen la conservación de estos espacios singularmente sensibles al deterioro, ni los costes externos a la propia acción ni la rentabilidad o valor social del medio

Diversos son los factores que han incidido negativamente sobre la conservación de este escenario natural, revalorizado por el cambio en las costumbres humanas y por la civilización del ocio como fenómeno de masas.

Por una parte, la disminución de los aportes sólidos de los ríos y arroyos ha ocasionado la regresión del 17 por 100 de línea de costa, debido a que por los embalses construidos y las repoblaciones forestales realizadas, el 80 por 100 del territorio nacional, que incluye los terrenos abruptos y, por tanto, los principales suministradores de sedimentos, ya no aporta áridos a aquélla, a lo que hay que añadir en otros casos su reducción por la disminución de caudal, debido a las captaciones de agua.

A este olvido de que los áridos son un recurso escaso, con un largo o costoso proceso de renovación, hay que añadir la destrucción de dunas litorales, las extracciones abusivas de áridos y, en muchas ocasiones, la ejecución de obras marítimas sin tener en cuenta sus perjudiciales efectos, con barreras que bloquean el flujo de arena a lo largo de la costa.

Se ha producido además con demasiada frecuencia la desnaturalización de porciones del dominio público litoral, no sólo porque se ha reconocido la propiedad

eta, 100eko 8an, nekazaritzako erabilerak. 100eko 42an, aldiz, erabilerak ez daude argi definituta edo ez dira lehengoratu ezinak.

Loturarik gabeko jarduerak eragin dute, oro har, egoera hori. Gainera, ez da behar besteko koordinaziorik egon, itsas jabari publikoari buruzko legeriaren eta lurzuari buruzko legeriaren artean; lurrak eta itsasoak elkarrengan duten eragina ez da kontuan hartu; ez dira neurriak ezarri, erraz narria daitezkeen gunek horiek kontserbatzeko; eta, orobat, ez dira aintzakotzat hartu ekintzatik kanpoko kostuak, ezta ingurunearen errentagarritasuna edo gizarte-balioa ere.

Toki natural hori kontserbatzeko orduan, eragin kaltegarria izan dute hainbat faktorek. Kontserbazio horren balioa, ordea, asko gehitu da, giza ohiturak aldatzearen ondorioz eta aisiaren zibilizazioa masa-fenomeno bihurtzearen ondorioz.

Alde batetik, ibaiek eta errekek gero eta solido gutxiago ekartzen dituzte, eta horrek eragin du kosta-lerroak 100eko 17an atzera egitea. Izan ere, zenbait urtegi eraiki dira eta hainbat basotan zuhaitzak sartu dira. Horren ondorioz, estatuaren lurraldeko 100eko 80ak dagoeneko ez du agregakinik eramaten kostaldera; kontuan hartu behar da lurralde horrek bere barruan hartzen dituela lur malkartsuak, eta, beraz, jalkin-hornitzaile nagusiak. Horrekin batera, nabarmentzekoa da, ur-bilketen ondorioz ur-emia gutxitzeak eragin duela, beste kasu batzuetan, solido gutxiago ekartzea.

Ahantzi egin da, ahantzi ere, agregakinak baliabide urriak direla, eta horiek berriztatzeko prozesua luze eta nekeza dela. Horri gaineratu behar zaizkio, besteak beste, itsasertzeko dunak suntsitzea, agregakinak abusuz ateratzea, eta, maiz-sarri, itsas obrak egitea, horien ondorio kaltegarriak gogoan izan gabe, eta kostaldean zehar hare-isuria oztopatzen duten hesiak jarrita.

Halaber, itsasertzeko jabari publikoko eremuak sarri askotan euren izaeraz landa erabili dira, jabetza pribatua aitortzeaz gain, egitezko pribatizazioa ere gauzatu

particular, sino también por la privatización de hecho que ha supuesto el otorgamiento de determinadas concesiones y la carencia de accesos públicos, con el resultado de que ciertas extensiones de la ribera del mar han quedado injustificadamente sustraídas al disfrute de la colectividad.

Entre los casos más lamentables de degradación física puede citarse la destrucción de los más importantes núcleos generadores de vida en el medio marino, las marismas.

Muchos de estos espacios vitales para la producción orgánica y biológica han sido destruidos bajo pretendidos motivos sanitarios, económicos o agrícolas, incluso con subvenciones económicas y exenciones tributarias, habiendo sido dedicados realmente a una edificación especulativa.

Las consecuencias del creciente proceso de privatización y depredación, posibilitado por una grave dejación administrativa, han hecho irreconocible, en numerosas zonas, el paisaje litoral de no hace más de treinta años, con un urbanismo nocivo de altas murallas de edificios al mismo borde de la playa o del mar, vías de transporte de gran intensidad de tráfico demasiado próximas a la orilla, y vertidos al mar sin depuración en la mayoría de los casos.

Este doble fenómeno de destrucción y privatización del litoral, que amenaza extenderse a toda su longitud, exige de modo apremiante una solución clara e inequívoca, acorde con la naturaleza de estos bienes, y que, con una perspectiva de futuro, tenga como objetivos la defensa de su equilibrio y su progreso físico, la protección y conservación de sus valores y virtualidades naturales y culturales, el aprovechamiento racional de sus recursos, la garantía de su uso y disfrute abierto a todos, con excepciones plenamente justificadas por el interés colectivo y estrictamente limitadas en el tiempo y en el espacio, y con la adopción de las adecuadas medidas de restauración.

delako, edozenbat emakida emanaz eta eremu horiek sarrera publikorik gabe utziz; horrek berarekin ekarri du itsasertzeko zenbait eremu kolektibitatearen erabileratik kanpo uztea justifikaziorik gabe.

Degradazio fisiko nabarmeneko kasuen artean dago itsas ingurunean bizitza-sortzaile garrantzitsuenak diren esparruen suntsipena, padurena alegia.

Ekoizpen organiko eta biologikorako berebiziko garrantzia duten eremu horietako asko suntsitu dira, osasun-ekonomia- eta nekazaritza-arrazoien aitzakiarekin, eta, horretarako, dirulaguntzak eta tributu-salbuespenak ere baliatu dira; errealitatean, ordea, eremu horiek maiz erabili dira eraikuntzarako espekulazio-asmoekin.

Administrazioaren utzikeria larriak ahalbidetu du areagotuz joatea pribatizazio- eta harrapakaritza-prozesua; hain justu ere, prozesu horren ondorioek, azken hogeita hamar urteetan, toki askotan ezezagun bihurtu dute itsasertzeko paisaia, dela hirigintza kaltegarria gauzatu delako, hondartza edo itsas bazterretan eraikinen harresi altuak jasoz, dela urertzetik gertuegi trafiko handiko garraiobideak egin direlako, dela itsasora hondakinak isuri direlako, gehienetan araztu gabe.

Itsasertza suntsitu eta pribatizatzeako fenomeno bikoitz hori itsasertz osora hedatzeko arriskua dagoenez, beharrezkoa da ahalik eta lasterren konponbidea bilatzea, argia eta zalantzarik gabea, ondasun horien izaerarekin bat datorrena, eta etorkizunera begira xede dituen itsasertzaren oreka eta aurrerapen fisiko defendatzea, itsasertzaren balioak eta natura- nahiz kultura-birtualitateak babestu eta horiei eustea, itsasertzeko baliabideak modu arrazionalen aprobetxatzea, eta pertsona guztiei bermatzea itsasertzaren erabilera edo gozamina, interes kolektiboak erabat justifikatutako salbuespenak gorabehera; salbuespen horiek modu hertsian mugatuko dira denbora nahiz eremu aldetik, eta neurri

II

La insuficiencia de la legislación vigente para la consecución de los objetivos descritos es tan notoria que resulta superfluo insistir sobre ella.

La Ley de Costas de 26 de abril de 1969, se redujo a un esfuerzo codificador de carácter competencial, de asignación de las atribuciones de los diversos Departamentos y Entidades llamados a actuar sobre el dominio público marítimo.

La Ley de Protección de las Costas Españolas de 1980, sólo vino a llenar, y de forma no plenamente satisfactoria, una de las importantes lagunas de la anterior, al tipificar las infracciones en esta materia y determinar las correspondientes sanciones, así como el procedimiento para su imposición.

Pero es obvio que ni la perspectiva competencial ni la sancionadora son, por sí solas, el punto de partida adecuado para una regulación completa de los bienes de dominio público en cuestión.

Más aún, el carácter fragmentario de la legislación vigente obliga a aplicar, como derecho supletorio, disposiciones legales del siglo XIX.

De una parte, la legislación sobre puertos, procedente de la de aguas y centrada, como su propia denominación indica, en la construcción y explotación de las infraestructuras portuarias.

De otra, la de obras públicas, que, por su carácter general, desconoce los asuntos específicos del dominio público marítimo-terrestre, está inspirada por una configuración del papel del Estado, hoy claramente desfasada y, comprensiblemente, dada su época, no tiene la preocupación por la conservación de la Naturaleza, que es necesaria actualmente ante el número e intensidad de las agresiones producidas.

Y, así,, son fallos graves de la vigente legislación, puestos de relieve por los

egokiak hartuko dira aipatu bermeak berrezartzeko.

II

Aipatu helburuak lortzeko indarreko legeriaren gabeziak hain nabariak izanik, ez da beharrezkoa horretan gehiago sakontzea.

1969ko apirilaren 26ko Kostaldee buruzko Legearen xede izan zen eskumenak koordinatzea, itsas jabari publikoaren gainean jardun behar zuten sail eta erakunde desberdinei eginkizunak eratzikiz.

1980ko Legeak, Espainiako Kostaldek Babesteari buruzkoak, helburu izan zuen aurreko legearen hutsunerik handienetarikoa bat betetzea, gai horretako arau-haustek tipifikatu eta kasuan kasuko zehapenak ezarri, bai eta zehapenok ezartzeko prozedura jasoz ere; dena den, helburu hori ez zen modu egokian gauzatu.

Edonondik begira dakiola ere, argi dago eskumen- eta zehapen-ikuspegia ez dela nahikoa, ezta abiapuntu egokia ere, itsas jabari publikoko ondasunak osotasunean arautzeko.

Areago, indarreko legeriaren zatikako izaera dela bide, nahitaezkoa da XIX. mendeko lege-xedapenak aplikatzea, ordezko zuzenbide gisa.

Batetik, portuei buruzko legeria dago, urei buruzko legeriatik datorrena, eta, bere izenak erakusten duenez, oinarri duena portuko azpiegiturak eraiki eta ustiatzea.

Bestetik, herri-lanei buruzko legea dago; lege hori orokorregia da, eta, horrenbestez, ez ditu aintzat hartzen itsas-lehorreko jabari publikoaren ezaugarri zehatzak, gaur egun erabat gaudituta dagoen egitekoa aitortzen dio estatuari eta, eman zeneko garaia kontuan hartuta guztiz ulergarria bada ere, ez du natura kontserbatzearen inguruko ardurarik hartzen; gaur egun, aldiz, ardura hori beharrezkoa da, itsas-lehorreko jabari publikoari eragindako erasoak kopuru eta intentsitateari erreparatuz gero.

Halatan, indarreko legeriaren akats larriak dira, adituek eta gai horretaz idazten

expertos y tratadistas del tema, la escasa definición de zona marítimo-terrestre y de playa, que no llega a cubrir la realidad natural; la prevalencia de la posesión particular amparada por el Registro de la Propiedad, con reivindicación a cargo del Estado, y la adquisición privada del dominio público; las servidumbres obsoletas e insuficientes; la ausencia total de medidas de protección en el territorio colindante; la usucapación veintenal como título legitimador del uso; la actitud meramente pasiva de la Administración en el otorgamiento de títulos de ocupación o uso; el tratamiento indiferenciado de autorizaciones y concesiones, y la generalización de éstas, con lo que ello supone de ampliación de los derechos de sus titulares sobre el dominio público; la falta de garantías eficaces para la conservación del medio por parte de los mismos, y el levantamiento de las ocupaciones a costa del Estado; la ausencia de determinaciones y normas conservacionistas del paisaje y del medio; la lentitud del procedimiento sancionador, e incluso la obsolescencia de algunas competencias por la nueva organización del Estado.

Ante la simultaneidad de una gran presión de usos y la falta de una legislación adecuada, los hechos evidencian que España es uno de los países del mundo donde la costa, en el aspecto de conservación del medio, está más gravemente amenazada, y hora es ya de poner fin a su grave y progresivo deterioro y a las alteraciones irreversibles de su equilibrio.

La presente Ley viene, además, a cumplir el mandato expreso en nuestra Constitución, que en su artículo 132.2 ha declarado que son bienes de dominio público estatal los que determine la ley y, en todo caso, la zona marítimo-terrestre, las playas, el mar territorial y los recursos naturales de la zona económica y la plataforma continental.

Esta es la primera vez en nuestra historia legislativa que por una disposición del máximo rango se clasifican determinados bienes como de dominio público, con la

дутенек azaldutakoaren arabera, itsas-lehorreko gunearen eta hondartzaren zehaztasun urria, horrek ez baitu kontuan hartzen naturaren izatea; edukitza pribatuaren nagusitasuna, Jabetza Erregistroaren babesarekin, estatuak hala errebindikatuta, eta subjektu pribatuek eskuratzea jabari publikoa; zaharkituak eta behar adinakoak ez diren zortasunak; lurralde mugakidean inolako babes-neurririk ez izatea; hogeituro urteko usukapioa, erabilera legitimatzen duen titulu gisa; estatuaren jarrera pasiboa, okupazio- eta erabilera-tituluak ematean; baimenei eta emakidei tratamendu bera ematea, eta halakoak orokortzea, titularrek jabari publikoaren gainean dituzten eskubideak gehituz; berme eragingarririk ez izatea, titularrek ingurua kontserba dezaten, eta eraikinak estatuaren kontura jasotzea; paisaia eta ingurumena kontserbatzeko zehaztapenak eta arauak ez izatea; prozedura zehatzailearen moteltasuna, eta eskumen batzuen izaera zaharkitua, estatuaren antolaketa berritu eta gero.

Erabilera anitzak eta legeria egokiaren gabeziak argiro erakusten dute mundu-mailan Espainiako kostaldea dela modu larrienean mehatxatuta dagoena, eta badela garaia kostaldeak jasaten duen narriadura larri eta etengabea amaitzeko, eta beste horrenbeste egiteko orekan jasaten dituen behin betiko aldaketei dagokienez ere.

Halaber, lege honek helburu du konstituzio-agindua betetzea; izan ere, Konstituzioak, 132.2 artikuluan adierazi du jabari publikoko ondasunak direla legeak finkatzen dituenak, eta edozein kasutan, itsas-lehorreko aldea, hondartzak, lurralde-itsasoa, gune ekonomikoaren baliabide naturalak eta kontinenteko plataforma.

Bada, lege honen bidez, Espainiako legegintzaren historian, lerrun goreneko xedapen batek lehendabiziko aldiz sailkatu ditu ondasun batzuk jabari publikoaren

particularidad de que los únicos a los que la Constitución atribuye directamente esa definición pertenecen precisamente al dominio público marítimo-terrestre.

Y es evidente que ello ha sido para cortar, de una vez por todas, las anteriores confusiones y actitudes contrarias a la demanialidad de espacios tan importantes.

En esta Ley, referida básicamente a la gestión y conservación de este patrimonio natural, se desarrollan asimismo los principios establecidos en el artículo 45 del Texto Constitucional y se recogen los criterios contenidos en la Recomendación 29/1973 del Consejo de Europa, sobre Protección de Zonas Costeras, en la Carta del Litoral de 1981 de la Comunidad Económica Europea y en otros planes y programas de la misma.

En este contexto, en modo alguno se puede considerar a la presente Ley como una mera reforma de la actual.

Se trata, en rigor, de una ley nueva, con una concepción distinta de la regulación del dominio público marítimo-terrestre, sin perjuicio de lo que para materias concretas se establezca en las correspondientes leyes especiales a las que ésta se remite.

No obstante su mayor ámbito, la Ley dedica su principal atención a la costa o litoral, que es donde se plantean los mayores problemas.

De ahí su denominación.

La Ley es, pues, en muchos puntos, profundamente innovadora.

Se han recogido las enseñanzas de nuestra propia experiencia y la de países con problemas análogos al nuestro.

En algunos casos la innovación consiste en restaurar en toda su pureza principios de hondo arraigo en nuestro Derecho histórico pero que habían quedado debilitados en su aplicación.

En otros casos, en cambio, se incorporan preceptos y técnicas de nuevo cuño, con los que se trata de dar solución a los problemas derivados de la congestión y degradación del litoral a que antes se ha

izaerarekin; alabaina, kontuan hartu behar da Konstituzioak itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunei bakarrik eratziki diela definizio hori.

Eta ageri-agerikoa da horren helburua, hau da, iraganean eremu garrantzitsu horien demaniotasunaren inguruan sortutako nahasteak eta demaniotasun horren aurka izandako jarrerak ezabatzea.

Orobat, oinarrian ondare natural hori kudeatu eta kontserbatzeko xedea duen lege honetan, konstituzio-testuaren 45. artikuluko printzipioak garatu dira, eta Europako Kontseiluaren 29/1973 Gomendioan, Kostaldeak Babesteari buruzkoan, Europako Ekonomia Erkidegoaren 1981eko Itsasertzeko Gutunean eta horren beste plan eta programa batzuetan jasotako irizpideak bildu dira.

Testuinguru horretan, lege hau ez da egungoaren eraldaketa hutsa.

Azken buruan, lege berria da hau; itsas-lehorreko jabari publikoa arautzeko modu desberdina du, kalterik egin gabe, gai zehatzei dagokienez, kasuan kasuko lege bereziek ezar dezaketenari, lege honek horietara jotzen duenean.

Legeak esparru zabalagoa izan arren, gehienbat, kostaldea eta itsasertza hartu ditu kontuan, horietan sortzen direlako arazorik handienak.

Hortik, bada, beraren izena.

Horrenbestez, legea, alde askotan, oso berritzailea da.

Espainiak izandako eskarmentuaren irakatsiak hartu dira kontuan, bai eta Espainiaren antzeko arazoak dituzten herrialdeenak ere.

Kasu batzuetan, berrikuntza izan da oso osoan berrezartzea Espainiako zuzenbide historikoan sakon sustraitutako printzipioak, aplikazioaren aldetik garrantzia galdua zutenak.

Beste kasu batzuetan, izaera berriko manu eta teknikak gehitu dira, itsasertzeko kongestio eta degradazioak, arestian esandakoaren haritik, sortzen dituen arazoak konpontzeko asmoarekin.

hecho referencia.

III

Quedan fuera del ámbito de aplicación de la Ley los puertos de interés general, que, aun formando parte de los bienes de dominio público marítimo-terrestre de titularidad estatal, continuarán rigiéndose por su legislación específica, en atención a la sustantividad y peculiaridades de estas grandes obras públicas.

Tampoco se regulan, por no ser competencia del Estado, los puertos de titularidad de las Comunidades Autónomas, en virtud de sus respectivos estatutos.

Ahora bien, como la construcción o ampliación de los puertos de competencia autonómica requiere la ocupación de una parte de los bienes de dominio público marítimo-terrestre estatal de los regulados en la presente Ley, ha parecido oportuno establecer en ella el régimen de adscripción de dichos bienes a las Comunidades Autónomas, siguiendo la pauta marcada por los decretos de traspaso de servicios en materia de puertos, que ahora se aplica no sólo a las obras específicamente portuarias de las Comunidades Autónomas, sino también a la construcción de vías de transporte de la competencia de aquellas que, por su configuración, requieran la ocupación del dominio marítimo-terrestre estatal.

IV

En las cuestiones de dominio, además de definir la ribera del mar de forma más acorde con su realidad natural, se vuelve a los orígenes de nuestra tradición, recogida en el Derecho romano y medieval, al reafirmar la calificación del mar y su ribera como patrimonio colectivo, siguiendo el mandato constitucional, en concordancia con el artículo 339.1 del Código Civil.

La Ley cierra el paréntesis de signo privatizador que inició la Ley de Aguas de 1866 con un equívoco respecto a los derechos legítimamente adquiridos, que no deberían ser otros que los concesionales, continuado por las Leyes de Puertos de

III

Lege honen aplikazio-esparrutik kanpo daude interes orokorreko portuak; izan ere, halako portuak estatuaren titulartasuneko itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak izan arren, euren legeria bereziak arautuko ditu aurrerantzean ere, herri-lan handi horien garrantzia eta berezitasunak aintzat hartuta.

Bestalde, lege honetan ez dira arautu autonomia-erkidegoen titulartasuneko portuak, estatuaren eskumenekoak ez izateagatik, kasuan kasuko autonomia-erkidegoetako estatutuen arabera.

Hala ere, autonomia-erkidegoen eskumeneko portuak egitean edo zabaltzean, estatuaren itsas-lehorreko jabari publikoko ondasun batzuk okupatu behar direnez, hain zuzen ere, lege honek araututakoak, egokitzen jo da lege honetan ezartzea ondasun horiek autonomia-erkidegoei atxikitzeko araubidea; horretarako, kontuan hartu dira portuen gaian zerbitzuak transferitzeko dekretuetan ezarritako jarraibidea; arean ere, jarraibide hori aplikatzen zaie, autonomia-erkidegoetako portu-lanei ez ezik, autonomia-erkidegoen eskumeneko garraioetako eraikuntzari ere, halakoek estatuaren itsas-lehorreko jabari publikoa okupatu behar dutenean.

IV

Jabariaren inguruko gaiei dagokienez, itsasertza zehaztu da, naturaren izateari hobeto egokitzen zaion eran. Horrez gain, Espainiako tradizioaren jatorrietara jo da berriro, hots, zuzenbide erromatarrean eta Erdi Aroko zuzenbidean jasotako tradiziora; esangura horretan, berretsi da itsasoa eta itsasertza ondare kolektiboak direla, konstituzio-aginduari jarraituz, eta Kode Zibilaren 339.1 artikularekin bat etorritik.

Lege honek itxi du, 1866ko Uren Legeak pribatizazioaren alde irekitako parentesia, non oker ulertzen ziren modu legitimoan eskuratutako eskubideak, emakiden bidez eskuratutakoak baino ez liratekeenak izan behar; gerogarrenean, Uren Legearen

1880 y 1928, así como por la Ley de Costas de 1969, a pesar de los graves problemas que ya existían en esta época y de la postura contraria y prácticamente unánime de la doctrina.

La presente Ley establece la prevalencia de la publicidad de este dominio natural, y posibilita además su inscripción registral, arbitrándose también otras medidas para coordinar la actuación de la Administración y el Registro de la Propiedad, con el fin de evitar los perjuicios ocasionados por su inexistencia.

De este modo, se excluye la posibilidad de consolidar la apropiación por particulares de terrenos de dominio público.

En esta línea, se ha considerado conveniente eliminar la posibilidad de adquirir la propiedad de los terrenos ganados al mar o de cualquier otra porción del dominio público como consecuencia de la realización de obras, ya que estas actuaciones proporcionan frecuentemente cobertura a operaciones de especulación inmobiliaria, y en todo caso van en detrimento del dominio público.

Con la derogación además de la Ley de 1918 sobre Paseos Marítimos, y derogada ya, por la nueva Ley de Aguas, la de Desección y Saneamiento de Marismas, de aquella misma fecha, la presente Ley se propone justamente lo contrario; no sólo mantener en este dominio público los espacios que reúnen las características naturales del medio, sino además establecer mecanismos que favorezcan la incorporación de terrenos al dominio público, ampliando la estrecha franja costera que actualmente tiene esta calificación demanial.

A este respecto, conviene destacar también que la denominación de dominio marítimo-terrestre, utilizada en esta Ley, se considera más adecuada que la hasta ahora empleada de marítimo, precisamente porque pone de relieve la existencia y necesidad de un espacio terrestre complementario de aquél, para cuya denominación genérica se vuelve a utilizar

jarraipen izan ziren 1880ko eta 1928ko Portuei buruzko legeak, bai eta 1969ko Kostaldee buruzko Legea ere, garai haietan zeuden arazo larriak gorabehera, eta doktrinan aurkako jarrera ia-ia ahobatezkoa izan arren.

Lege honek jabari natural horren publizitateak duen lehentasuna ezarri du, jabari horren erregistro-inskripzioa ahalbidetu du, eta beste neurri batzuk ere jaso ditu, Administrazioaren jarduna eta Jabetza Erregistroa koordinatuta egon daitezen, publizitate horren gabeziak eragindako kalteak saihesteko helburuarekin.

Edu horretan, jabari publikoko lurraldeen gainean subjektu pribatuek edukitzea sendotzeko aukera baztertu da.

Ilido bertsutik, komenigarritzat jo da, obrak egitearen ondorioz, itsasoari irabazitako lurren edo jabari publikoko beste edozein zatiren gaineko jabetza eskuratzeko aukera ezabatzea; bada, halako jarduerak sarri askotan higiezinaren inguruko espekulazio-eragiketarako estaltzen dituzte, eta, edozein kasutan, jabari publikoaren aurka egiten dute.

Behin 1918ko Legea, Itsas Pasealekuei buruzkoa, indargabetuta, eta kontuan hartuta urte bereko Padurak Lehortu eta Saneatzeko Legea urei buruzko lege berriak indargabetu duela, lege honen helburua guztiz kontrakoa da, alegia, jabari publiko horretan inguruaren ezaugarri naturalak dituzten eremuak iraunaraztea, eta mekanismoak ezartzea, lur gehiago bil dadin jabari publikora, gaur egun demanio gisa kalifikatutako itsasertz estua hedatzeko.

Horren haritik, nabarmendu behar da lege honetan itsas-lehorreko jabariaz hitz egiten dela, orain arte erabili izan den itsas jabaria baino egokiagozat jo delako izen hori; izan ere, izen berriak itsas jabaria osatzen duen lehorreko eremua kontuan hartzeaz gain, hori beharrezkoa dela agertzen du. Itsas jabaria orokorrean izendatzeko, berriro ere itsasertz esamolde tradizionala

la expresión tradicional de ribera del mar. En resumen, se han desarrollado los principios del artículo 132.1 de la Constitución sobre la imprescriptibilidad e inalienabilidad del dominio público, con la facultad administrativa de su reintegro posesorio de oficio, cualquiera que sea el tiempo transcurrido.

De especial novedad e interés, porque el tiempo actúa en contra de la conservación de los espacios naturales y a favor de la extensión de las áreas urbanas, es el Título dedicado a la protección del dominio público marítimo-terrestre.

Este Título establece, como es tradicional en la legislación española reguladora de bienes de dominio público, una serie de limitaciones a la propiedad de los terrenos colindantes, que tienen el carácter de regulación mínima y complementaria de la que dicten las Comunidades Autónomas en el ámbito de sus competencias, por lo que la presente Ley se contrae a la definición de las condiciones básicas para el ejercicio de ese derecho en los mencionados terrenos y trata de asegurar la efectividad del derecho a disfrutar de un medio ambiente adecuado, así como el deber de conservarlo, siguiendo pautas ya establecidas en otros países europeos y también en el nuestro en relación a los terrenos colindantes con otros bienes de dominio público.

La mayor parte de esas limitaciones venían ya establecidas por la legislación hasta ahora vigente, pero la nueva Ley, en coherencia con sus objetivos de conservación de la integridad del dominio público, configura la vieja servidumbre de salvamento, obsoleta en cuanto a la finalidad específica que indica su denominación, como una servidumbre de protección del citado dominio, que comporta la prohibición general de determinadas actividades y, sobre todo, construcciones consideradas perjudiciales para la adecuada protección de un medio natural tan sensible, como la experiencia ha puesto de relieve.

En efecto, la garantía de la conservación

erabiltzearen alde egin da.

Labur-zurrean esanda, Konstituzioaren 132.1 artikulua jakari publikoaren preskribatu eta enbargatzeko ezintasunaren gainean ezarritako printzipioak garatu dira, Administrazioari ahalbidetuz halakoen gaineko edukitza ofizioz berreskuratzea, igarotako denbora kontuan hartu gabe.

Itsas-lehorreko jakari publikoa babesteari buruzko titulua berrikuntza garrantzitsua ez ezik, oso interesgarria ere bada, denbora natura-eremuak kontserbatzearen kontra doalako, eta hiriguneak hedatzearen alde.

Espanian jakari publikoko ondasunak arautzen dituen legeriaren tradizioari jarraituz, titulu horrek muga batzuk ezarri dizkio lur mugakideen jabetzari, gutxieneko arauketa eta arauketa osagarriaren izaera dutenak, autonomia-erkidegoek euren eskumenen esparruan eman ditzaketen arauari begira. Horrenbestez, lege hau mugatzen da lur horietan jabetza-eskubidea egikartzeko oinarritzko baldintzak zehaztera; halaber, legeak ahaleginak egin ditu, ingurumen egokia izateko eskubidearen eragingarritasuna ziurtatzeko, bai eta hori zaintzeko ere; horretarako, kontuan hartu ditu Europako beste herrialde batzuetan ezarritako jarraibideak eta Espainian ezarritakoak, jakari publikoko beste ondasun batzuen mugakide diren lurri begira.

Muga horietarik gehienak orain arte indarrean izan den legeriak jasotakoak dira, baina lege berriak, jakari publikoa oso-osoan kontserbatzeari dagokionez dituen helburuekin bat eginez, antzinako salbamendu-zortasuna itxuratu du. Halatan, zaharkitutako zortasun hori, izenak agertzen duen xedearen eretzean, aipatu jabaria babesteko zortasun bihurtu da; horrek berarekin dakar jarduera jakin batzuk gauzatzeko debeku orokorra, eta, batez ere, esperientziak erakutsi duenaren ildotik, natura-ingurune hain hauskorra modu egokian babesteko kaltegarriak diren eraikuntzak egiteko debekua.

Bada, itsas-lehorreko jakari publikoa

del dominio público marítimo-terrestre no puede obtenerse sólo mediante una acción eficaz sobre la estrecha franja que tiene esa calificación jurídica, sino que resulta también imprescindible la actuación sobre la franja privada colindante, para evitar que la interrupción del transporte eólico de los áridos y el cierre de las perspectivas visuales para la construcción de edificaciones en pantalla, la propia sombra que proyectan los edificios sobre la ribera del mar, el vertido incontrolado y, en general, la incidencia negativa de la presión edificatoria y de los usos y actividades que ella genera sobre el medio natural, puedan causar daños irreparables o de muy difícil y costosa reparación.

La anchura de esta zona de servidumbre de protección ha de ser, lógicamente, convencional, si bien debe fijarse conjugando con carácter general una profundidad de 100 metros, si bien en las zonas ya urbanizadas se mantiene la anchura de 20 metros de la anterior servidumbre de salvamento, como se indicará más adelante al comentar el régimen transitorio.

Estas dimensiones están entre las menores que recoge el derecho comparado.

Sin el carácter estricto de servidumbre, se define también una zona de influencia, en la que se marcan determinadas pautas dirigidas al planificador con objeto de evitar la formación de pantallas arquitectónicas en el borde de la zona de servidumbre de protección, o que se acumulen en dicho espacio eventuales compensaciones que puedan considerarse convenientes o útiles en la ordenación urbanística, lo que implica la ventaja añadida de reanimar económicamente una franja más amplia de terrenos.

Todo ello sin perjuicio de las medidas adicionales de protección que promulguen las Comunidades Autónomas en materia de medio ambiente, así como de las que adopten las citadas Comunidades y los Ayuntamientos en ejercicio de sus competencias en materia de ordenación del territorio y urbanismo.

Asimismo se actualiza la denominación y el

kontserbatzeko bermea ezin da lortu, ekintza eragingarria gauzatuz kalifikazio juridiko hori duen ertz estuan bakarrik; orobat, nahitaezkoa da mugakide den ertz pribatuan jardutea, kalte konponezinak edo konpontzeko zail eta garestiak direnak saihesteko; halako kalteak sor ditzakete haizeak agregakinak ekartzeko ezintasunak eta pantaila-eraikinak egin daitezen ikuspegiaren itxierak, eraikinek itsasertzean egiten duten gerizpeak, kontrolik gabeko isuriak, eta, orokorrean, eraikuntza-presioak eta horren ondoriozko erabilera eta jarduerak natura-ingurunearen gainean dituzten eragin negatiboak.

Argiro antzeman daitekeenez, babes-zortasuneko gune horren zabalera konbentzionala izan behar da; baina zabalera hori, orokorrean, 100 metroko sakonera gordez finkatu behar da, nahiz eta dagoeneko urbanizatuta dauden guneetan iraganeko salbamendu-zortasunaren 20 metroko zabalari eutsi, gerogarrenean azalduko den moduan, araubide iragankorra aztertzean.

Zuzenbide konparatuak ezartzen dituen dimentsioetarik txikienetarikoa dira horiek.

Zortasunaren izaera hertsitik at, eraginpeko gune jakin bat ere zehaztu da; bada, gune horri begira jarraibide batzuk ezarri dira, planifikatzaileak kontuan har ditzan, babes-zortasuneko gunearen ertzean arkitektura-pantailak saihesteko, edo esparru horretan hirigintza-antolamendurako komenigarriak edo erabilgarriak izan daitezkeen konpentsazioak pilatzeko; horrek berarekin dakar ekonomiaren aldetik lur esparru zabalagoak bizkortzea.

Horrek guztiorrek ez die kalterik egingo, autonomia-erkidegoek ingurumenaren gaian ematen dituzten babes-neurri gehigarriei, ezta autonomia-erkidegoek eta udalek lurralde-antolaketaren eta hirigintzaren gaian euren eskumenak egikaritzean hartzen dituzten neurriei ere.

Era berean, iraganeko jagoletza-

régimen de la anterior servidumbre de vigilancia, sustituyéndola por la de tránsito público, y se mantiene la de paso o acceso al mar, previendo la existencia de los necesarios para garantizar el uso público del mar y su ribera.

Como novedad significativa debe mencionarse la limitación de extracciones de áridos en los tramos finales de los cauces, que trata de paliar la grave situación producida por la disminución de aportaciones de áridos a la costa, obligando a soluciones alternativas para la continuidad de su aprovisionamiento, así como otorgando a la Administración derecho preferente para la explotación, a este fin, de yacimientos de áridos.

Con respecto a la utilización del dominio público marítimo-terrestre, se establece una regulación eficaz de los diferentes usos, que incluye, tanto el uso común natural, libre y gratuito, como el uso especial, objeto de autorización, que abarca los casos de intensidad, peligrosidad, rentabilidad y las instalaciones desmontables, y las ocupaciones con obras fijas, objeto de concesión.

Con mayor motivo que en la zona afectada por la servidumbre de protección, se impide el privilegio que significaría la ocupación del dominio público por parte de aquellas actividades cuyo emplazamiento en el mismo no sea necesario; se faculta a la Administración para convocar concursos para el otorgamiento de las autorizaciones y concesiones que considere de especial interés, abandonando así su papel meramente pasivo y se reduce el plazo máximo de otorgamiento desde 99 a 30 años, suficiente para la amortización de cualquier instalación.

El régimen de financiación de las obras y actuaciones se establece en términos flexibles que contemplan la posibilidad de que se formalicen convenios en los que se detallará la aportación de las Entidades interesadas en los supuestos de financiación compartida.

La Ley regula los cánones y tasas exigibles

zortasunaren izena eta araubidea egokitu dira, horren orde zigarobide publikoko zortasuna ezarri baita, eta itsasora irteteko edo heltzeko zortasunari eutsi zaio, itsasoaren edo itsasertzaren erabilera publikoa bermatzeko behar adina irteera izan behar direla ezarri.

Berrikuntza nabarizatzen jo behar da ubideetako azken zatietan agregakinak ateratzeko muga; horrekin lotu nahi da kostaldera gero eta agregakin gutxiago iristeagatik sortu den egoera larria arintzea. Hori dela eta, nahitaezkoa da, agregakinak hornitzen jarraitu ahal izateko, irtenbide alternatiboak bilatzea, bai eta, xede horrekin, Administrazioari lehenespeneko eskubidea eratzitzea ere, agregakin-hobiak ustia ditzan.

Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilerari dagokionez, arauketa eragingarria egin da, erabilera desberdinak jasoz; arauketa horretara bildu da, dela erabilera arrunt, natural, aske eta doakoa, dela baimena behar duen erabilera berezia, azken horrek barneratzen dituela intentsitate-, arrisku-, errentagarritasun-kasuak nahiz instalazio desmontagarriak, eta obra finkodun okupazioak, emakiden xede direnak.

Babes-zortasunak ukitutako gunean baino arrazoi gehiagorekin, itsas-lehorreko jabari publikoan okupazio-pribilegiotzat jo daitezkeen jarduera guztiak eragozten dira, jarduerok gune horretan ez direnean beharrezkoak. Administrazioak baimena du konkurtso-deialdiak egiteko, bere ustez interes berezikoak diren baimenak eta emakidak emateko; horrenbestez, Administrazioak bazter utzi du bere jokabide pasiboa. Halaber, baimenen eta emakiden gehieneko epea 99 urtetik 30era gutxitu da, urte-kopuru hori nahikoa baita edozein instalazio amortizatzen.

Obra eta jardueren finantzaketa-araubidea malgutasunez ezarri da, baterako finantzaketa-kasuetan erakunde interesdunen ekarpenak zehaztuko dituzten hitzarmenak gauzatzea ahalbidetuz.

Legeak arautu ditu, Administrazioak jabari

como equitativa contraprestación por el derecho a la ocupación del dominio público otorgado por la Administración, así como las indemnizaciones por rescate.

En materia de infracciones y sanciones, se han regulado con mayor concreción criterios ya contenidos en la Ley de Protección de Costas de 1980, introduciendo una simplificación en los trámites del procedimiento sancionador y diversas medidas prácticas que hacen frente a actitudes de menosprecio a las normas jurídicas, con una mayor celeridad y eficacia en la respuesta a las infracciones, sin menoscabo de las garantías de los presuntos infractores.

Importante novedad es el reconocimiento de la acción pública para facilitar la colaboración de todos en la observancia de los preceptos de la Ley y de las disposiciones que la desarrollen y complementen.

El último Título de la Ley trata de las competencias administrativas.

En él se detallan sólo las que corresponden a la Administración del Estado y a los Municipios, mientras que las propias de las Comunidades Autónomas son objeto de una mención genérica, remitiendo su alcance y contenido a lo establecido en los respectivos Estatutos.

En cuanto a las competencias de la Administración del Estado ha parecido conveniente dejar al desarrollo reglamentario la concreción de los Departamentos y Organismos que deben ejercerlas en cada caso, ya que de otro modo hubiera sido necesario entrar en un grado de detalle impropio de un texto legal y, además, inoportuno por las modificaciones a que está sujeta la organización administrativa.

Todo ello sin perjuicio de mantener inalterada la atribución de competencias realizada por otras leyes específicas en materias relacionadas con el objeto de la presente.

En todo caso y habida cuenta de la concurrencia de competencias que se

publikoa okupatzeko eskubidea ematen duenean, kontraprestazio ekitatibo gisa ezarri beharreko kanon eta tasak, bai eta erreskatearen ondoriozko kalte-ordainak ere.

Arau-hausteen eta zehapenen gaian, zehaztasun handiagoarekin arautu dira 1980ko Kostaldean Babesari buruzko Legeak jaso zituen irizpideak; halatan, prozedura zehatzailearen izapideak sinplifikatu, eta neurri praktiko batzuk sartu dira, arau juridikoak gutxiesteko jarrereri aurre egiten dietenak; horrekin arau-hausteei arinago eta eragingarritasun gehiagorekin erantzuten zaie, ustezko arau-hausleen bermeei kalterik egin gabe.

Berrikuntza garrantzitsua da akzio publikoa aitortzea, lege hau eta berau garatu eta osatzen duten xedapenak betetzeari dagokionez denon arteko elkarlana egon dadin.

Legearen azken titulua administrazio-eskumenei buruzkoa da.

Titulu honetan Estatuko Administrazioaren eta udalerrien eskumenak bakarrik zehaztu dira; autonomia-erkidegoen eskumenak modu orokorrean aipatu baino ez direla egin, horien norainoko eta edukari dagokionez kasuan kasuko estatutuetan ezarritakora igorri.

Estatuko Administrazioaren eskumenei dagokienez, komenigarritzat jo da erregelamendu-garapena, eskumenok egikaritu behar dituzten sail eta erakundeak zehazteko; bestela, lege-testu bati ez dagokion zehaztasun-maila beharko litzateke, eta hori ezegokia da, administrazio-antolakuntzak izan ohi dituen aldarazpenengatik.

Horrek ez die kalterik egingo, lege honen xedearekin zerikusia duten gaietan, beste lege berezi batzuek eratzkitzen dituzten eskumenei.

Edozein kasutan, itsasertzeko eremuan pilotzen diren eskumenak kontuan hartuta,

produce sobre el espacio litoral, se ha procurado favorecer la coordinación con los instrumentos de ordenación territorial y urbanística mediante un sistema de consultas e informes recíprocos, que, siguiendo esquemas ya diseñados en la normativa vigente, salva las competencias de las respectivas Entidades y permite su articulación en un marco de colaboración.

Finalmente se establece un cuidadoso régimen transitorio que permita la adaptación de las situaciones existentes con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley a la nueva regulación contenida en la misma.

En el marco del respeto general a los derechos legalmente adquiridos, el criterio básico que se utiliza consiste en establecer la plena aplicabilidad de las disposiciones de la Ley sobre la zona de servidumbre de protección y de influencia únicamente a los tramos de costa que todavía no están urbanizados y en los que los propietarios del suelo no tienen un derecho de aprovechamiento consolidado conforme a la legislación urbanística.

En cambio, en las zonas urbanas o urbanizables, en las que sí se han consolidado tales derechos de aprovechamiento, no se aplican las determinaciones sobre la zona de influencia y la anchura de la servidumbre de protección se limita a 20 metros, es decir, la misma extensión que correspondía a la servidumbre de salvamento según la legislación de Costas que ahora se deroga.

Con los criterios de la nueva Ley se evita, por una parte, la incidencia sobre derechos adquiridos en términos que pudieran originar una carga indemnizatoria que gravitaría fundamentalmente sobre la Administración Urbanística y, por otra parte, se excluye también la necesidad de afrontar un proceso de revisión del planeamiento que introduciría un factor de inseguridad en las expectativas de edificación.

En este contexto, se regula con precisión la situación de las edificaciones existentes que resulten incompatibles con las disposiciones de la nueva Ley.

ahaleginak egin dira lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnekin koordinazioan aritzeko, elkarrekiko kontsulta- eta txosten-sistemaren bidez; horrela, indarreko arautegian alde aurretik diseinatuta zeuden eskemei jarraituz, erakunde desberdinen eskumenak aintzat hartu eta horien arteko artikulazioa ahalbidetzen da, elkarlaneko esparrua sortuz.

Azkenik, araubide iragankorra arreta handiz ezarri da, ahalbidetzeko legea indarrean jarri aurretik zeuden egoerak legean jasotako arauketa berriari egokitzea.

Legearen arabera eskuratutako eskubideak orokorrean errespetatzeko esparruan, oinarrizko irizpidea da babes-zortasuneko gunearen eta eraginpeko gunearen inguruan legeak ezarritako xedapenak oso-osoan aplikatzea, soil-soilik oraindik urbanizatu gabe dauden kostalde-zatietan eta hirigintza-legeriaren arabera aprobetxamendu-eskubidea sendotu gabe duten lur-jabeen kostalde-zatietan.

Aitzitik, hiriguneetan edo gune urbanizagarrietan, aprobetxamendu-eskubide horiek sendotu direnetan, ez dira aplikatzen eraginpeko gunearen inguruko zehaztasunak, eta babes-zortasunaren zabalera 20 metrokoa baino ez da, hau da, indargabetu den kostalde legeriak salbamendu-zortasunei begira ezarritako zabalera berekoa.

Ontziek edo aireontziek itsasora egiten dituzten isurketak euren legeria bereziak arautuko ditu.

Debekatuta egongo da hondakin solidoak eta obra-hondakinak isurtzea itsasora eta itsasertzera, bai eta babes-zortasuneko gunera ere, salbu eta hondakin horiek erabiltzen direnean betegune gisa eta behar bezala baimenduta daudenean.

57. artikulua

Isurketa guztiek beharko dute Administrazio eskudunaren baimena; baimen hori emango da aplikagarri den legeriaren arabera, estatukoa edo autonomia-erkidegokoa izango dena, kalterik egin gabe, hala denean, jabari publikoa okupatzeko emakidari.

Isurketa kutsagarrien kasuan, halaber, kontuan hartuko da 34. artikulua aipatu arauak ezarritakoa, beharrezkoa izanik eskatzaileak alde aurretik justifikatzea isurketok ezabatzeari edo tratatzeari dagokionez konponbide alternatiboa aplikatzeko ezintasuna edo zailtasuna.

Ezin izango dira substantziak isuri edo energia-motak sartu, halakoek eragiten dituztenean osasun publikoarentzako eta natura-inguruarentzako onargarriak diren arriskuak edo galerak baino handiagoak, indarreko arautegiaren arabera.

Kutsadura zein inguruk hartu eta inguru horri begira ezarri kalitate-helburuen arabera, isurketak mugatuko dira, teknikaren egoerak eta lehengaiak ahalbidetzen duten neurrian, eta, bereziki, kutsadura-karga xurgatzeko ahalmenaren arabera, inguru hori modu nabarmenean alda ez dadin.

58. artikulua

Isurketak baimentzeko baldintzen artean hurrengoak jaso beharko dira:

- a) Mugaeguneratzeko epea, gehienez ere hogeita hamar urtekoa izango dena.
- b) Beharrezkoak diren tratamendu-, arazte- eta ebakuazio-instalazioak, horien ezaugarriak eta jardunbidearen kontrol-osagaiak ezarriz, instalazioak gauzatzeko

de las fechas de iniciación y terminación de su ejecución, así como de su entrada en servicio.

c) Volumen anual de vertido.

d) Límites cualitativos del vertido y plazos, si proceden, para la progresiva adecuación de las características del efluente a los límites impuestos.

e) Evaluación de los efectos sobre el medio receptor, objetivos de calidad de las aguas en la zona receptiva y previsiones que, en caso necesario, se hayan de adoptar para reducir la contaminación.

f) Canon de vertido.

La Administración competente podrá modificar las condiciones de las autorizaciones de vertido, sin derecho a indemnización, cuando las circunstancias que motivaron su otorgamiento se hubiesen alterado o bien sobrevinieran otras que, de haber existido anteriormente, habrían justificado su denegación o el otorgamiento en términos distintos.

Si la Administración lo considera necesario, podrá suspender los efectos de la autorización hasta que se cumplan las nuevas condiciones establecidas.

En caso de que el titular de la autorización no realice las modificaciones en el plazo que al efecto le señale la Administración competente, ésta podrá declarar la caducidad de la autorización de vertido, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

La extinción de la autorización de vertido, cualquiera que sea la causa, llevará implícita la de la inherente concesión de ocupación del dominio público marítimo-terrestre.

La Administración competente podrá efectuar cuantos análisis e inspecciones estime convenientes para comprobar las características del vertido y contrastar, en su caso, el cumplimiento de las condiciones impuestas en la autorización del vertido.

Podrán constituirse Juntas de Usuarios para el tratamiento conjunto y vertido final de efluentes líquidos.

Artículo 59

hasierako eta amaierako datak finkatuz, bai eta instalazio horiek zein datatan hasiko diren zerbitzua eskaintzen ere.

c) Urteko isurketa-kopurua.

d) Isurketaren muga kualitatiboak eta epeak, halakoak bidezkoak badira, efluentearen ezaugarriak arian-arian ezarritako mugekin bat etor daitezten.

e) Isurketak inguru hartzailean eragiten dituen ondoreen ebaluazioa, gune hartzaileko uren kalitatearen helburuak eta, behar izanez gero, kutsadura murrizteko hartu behar diren neurriak.

f) Isurketa-kanona.

Administrazio eskudunak isurketa-baimenen baldintzak aldarazi ahal izango ditu, kalte-ordainetarako eskubiderik gabe, baimena ematea eragin zuten inguruabarrak aldatzen direnean edo beste batzuk sortzen direnean, aldez aurretik izan balira baimena ukatzea edo baimena beste baldintza batzuen arabera ematea justifikatuko zuketenak.

Administrazioak beharrezkotzat jotzen badu, baimenaren ondoreak eten ahal izango ditu, ezarritako baldintza berriak bete arte.

Baimenaren titularrak aldarazpenak gauzatzen ez baditu Administrazio eskudunak ezarritako epean, azken horrek isurketa-baimena iraungi dela adierazi ahal izango du, kasuan kasuko zehapenak ezartzea gorabehera.

Isurketa-baimenaren azkentzeak, horren arrazoia edozein dela, berarekin ekarriko du itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko emakida ere azkentzea.

Administrazio eskudunak egokitzen jotzen dituen azterketa eta ikuskatze guztiak gauzatu ahal izango ditu, isurketaren ezaugarriak egiaztatze eta, hala denean, isurketa-baimenean ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

Erabiltzaileen batzak eratu ahal izango dira, efluente likidoak batera tratatzeko eta horien azken isurketa egiteko.

59. artikulua

En aquellos casos en que el vertido pueda propiciar la infiltración o almacenamiento de sustancias susceptibles de contaminar las aguas o capas subterráneas se requerirá la previa realización de un estudio hidrogeológico que justifique su inocuidad.

Artículo 60

Sin perjuicio de lo establecido en otras leyes específicas y de las exigencias que comporten los programas de control y reducción de la contaminación por vertidos de hidrocarburos al mar, las refinerías de petróleo, factorías químicas y petroquímicas e instalaciones de abastecimiento de combustibles líquidos que posean terminales de carga y descarga de hidrocarburos en los puertos, mar territorial y aguas interiores, deberán disponer, en las cercanías de los terminales, las instalaciones de recepción de los residuos de hidrocarburos y cuantos otros medios que para prevenir y combatir los derrames establecen las disposiciones vigentes en materia de contaminación de las aguas del mar.

Asimismo, las plataformas e instalaciones dedicadas a la prospección de hidrocarburos en el mar, su explotación o almacenamiento deberán contar con los medios precisos para prevenir y combatir los derrames que puedan producirse.

Artículo 61

Las autorizaciones administrativas sobre establecimiento, modificación o traslado de instalaciones o industrias que originen o puedan originar vertidos al dominio público marítimo-terrestre se otorgarán condicionadas a la obtención de las correspondientes autorizaciones de vertido y concesiones de ocupación de dicho dominio.

Artículo 62

La Administración competente podrá prohibir, en zonas concretas, aquellos procesos industriales cuyos efluentes, a pesar del tratamiento a que sean sometidos, puedan constituir riesgo de contaminación superior a la admisible, según la normativa vigente, para el dominio público marítimo-terrestre, bien sea en su

Isurketak eragin dezakeenean urak edo lurpeko geruzak kutsatzeko gai diren substantziak iragaztea edo metatzea, aldez aurretik isurketa horrek kalterik egiten ez duela justifikatzeko azterketa hidrogeologikoa egin beharko da.

60. artikulua

Beste lege berezi batzuek ezarritakoa gorabehera, eta itsasora hidrokarburoak isurtzearen ondoriozko kutsadura kontrolatzeko eta murrizteko programen betekizunak gorabehera, portuetan, lurralde-itsasoan eta barne uretan hidrokarburoak kargatzeko eta deskargatzeko terminalak dituzten petrolio-findegiek, faktoria kimiko eta petrokimikoen eta erregai likidoen hornidura-instalazioek izan beharko dituzte, terminal horien inguruetan, hidrokarburo-hondakinak jasotzeko instalazioak eta isuriak prebenitzeko nahiz isuriei aurre egiteko gainerako baliabideak; baliabide horiek izango dira itsasoko urak kutsatzearen inguruan zein xedapen izan indarrean eta xedapen horietan ezarritakoak.

Orobat, itsasoan hidrokarburoen prospekzioak egiten, horiek ustiatzen edo biltegitratzen dituzten plataformek eta instalazioek beharrezko baliabideak izan beharko dituzte, egin daitezkeen isuriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko.

61. artikulua

Itsas-lehorreko jabari publikoan isurketak egiten dituzten edo egin ditzaketen instalazioak edo industriak ezarri, aldarazi edo lekuz aldatzeko administrazio-baimenak baldintzapean emango dira, aldez aurretik lortu beharko direlako jabari horretan isurketak egiteko eta okupazio-emakidak izateko baimenak.

62. artikulua

Administrazio eskudunak, gune zehatzetan, industria-prozesuak debekatu ahal izango ditu, horien efluenteez, izan dezaketen tratamendua gorabehera, onargarria den kutsadura-arriskua baino handiagoa eragin dezaketenean, indarreko arautegiaren arabera, itsas-lehorreko jabari publikorako, dela industria-prozesu horren

funcionamiento normal o en caso de situaciones excepcionales previsibles.

Sección 3ª.

Extracciones de áridos y dragados

Artículo 63

Para otorgar las autorizaciones de extracciones de áridos y dragados, será necesaria la evaluación de sus efectos sobre el dominio público marítimo-terrestre, referida tanto al lugar de extracción o dragado como al de descarga en su caso.

Se salvaguardará la estabilidad de la playa, considerándose preferentemente sus necesidades de aportación de áridos.

Quedarán prohibidas las extracciones de áridos para la construcción, salvo para la creación y regeneración de playas.

Entre las condiciones de la autorización deberán figurar las relativas a:

- a) Plazo por el que se otorga.
- b) Volumen a extraer, dragar o descargar al dominio público marítimo-terrestre, ritmo de estas acciones y tiempo hábil de trabajo.
- c) Procedimiento y maquinaria de ejecución.
- d) Destino y, en su caso, lugar de descarga en el dominio público de los productos extraídos o dragados.
- e) Medios y garantías para el control efectivo de estas condiciones.

En el caso de que se produjeran efectos perjudiciales para el dominio público y su uso, la Administración otorgante podrá modificar las condiciones iniciales para corregirlos, o incluso revocar la autorización, sin derecho a indemnización alguna para su titular.

CAPITULO V. Concesiones

Artículo 64

Toda ocupación de los bienes de dominio público marítimo-terrestre estatal con obras o instalaciones no desmontables estará sujeta a previa concesión otorgada por la Administración del Estado.

ohiko jardunbidean, dela aurreikus daitezkeen salbuespen-egoeretan.

3. atala.

Agregakinak ateratzea eta dragatzeak

63. artikulua

Agregakinak ateratzeko baimenak eta dragatze-baimenak emateko, beharrezkoa izango da halakoek itsas-lehorreko jabari publikoan dituzten ondoreak ebaluatzea; ebaluazio horrek kontuan hartuko ditu ateratze- nahiz dragatze-tokiak eta, hala denean, deskargatze-tokia ere.

Hondartzen egonkortasuna babestuko da, lehendabizi kontuan hartuz hondartzetara agregakinak heldu behar direla.

Agregakinak eraikuntzarako ateratzea debekatuko da, non eraikuntza horiek ez diren hondartzak eratzeko eta lehengoratzeko.

Baimenak jaso beharreko baldintzen artean hurrengoak izango dira:

- a) Baimena zein epetarako ematen den.
- b) Itsas-lehorreko jabari publikora atera, dragatu edo deskargatu beharreko kopurua, ekintza horien erritmoa eta benetan lan egiteko denbora.
- c) Ekintza horiek betetzeko prozedura eta makineria.
- d) Ateratako edo dragatutako produktuen destinoa eta, hala denean, halakoak jabari publikoan deskargatzeko tokia.
- e) Baldintza horiek eragingarritasunez kontrolatzeko baliabide eta bermeak.

Jabari publikoarentzat edo horren erabilerarentzat ondore kaltegarriak gauzatuz gero, Administrazio baimen-emaileak hasierako baldintzak aldarazi ahal izango ditu, baldintza horiek zuzentzeko, edo baimena ezeztatu ahal izango du, titularrarentzat inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

V. KAPITULUA. Emakidak

64. artikulua

Itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunen okupazio oro aldeztatik Estatuko Administrazioak emandako emakidaren mende izango da, okupazio hori desmuntagarri ez diren obra edo

Artículo 65

El otorgamiento de la concesión a que se refiere el artículo anterior no exime a su titular de la obtención de las concesiones y autorizaciones que sean exigibles por otras Administraciones Públicas en virtud de sus competencias en materia de puertos, vertidos u otras específicas.

Artículo 66

Las concesiones se otorgarán sin perjuicio de tercero y dejando a salvo los derechos preexistentes.

El plazo será el que se determine en el título correspondiente.

Reglamentariamente, se establecerán los plazos máximos de duración de las concesiones en función de los usos a que las mismas se destinen.

En ningún caso estos plazos podrán exceder de treinta años.

Cuando el objeto de una concesión extinguida fuese una actividad amparada por otra concesión de explotación de recursos mineros o energéticos otorgada por la Administración del Estado por un plazo superior, su titular tendrá derecho a que se le otorgue una nueva concesión de ocupación del dominio público marítimo-terrestre por un plazo igual al que reste de vigencia a la concesión de explotación, sin que en ningún caso pueda exceder de treinta años.

Artículo 67

Previamente a la resolución sobre la solicitud de la concesión habrá información pública y oferta de condiciones de la Administración del Estado al peticionario, sin cuya aceptación no será otorgada.

Cumplidos estos trámites, la resolución correspondiente será dictada, discrecionalmente, por el Departamento ministerial competente y deberá hacerse pública.

Si el concesionario impugna las cláusulas que fueron aceptadas por él, la Administración estará facultada para

instalazioekin egiten denean.

65. artikulua

Aurreko artikulua aipatu emakida eman arren, titularra ez da askatuko beste Administrazio publiko batzuek eskatutako emakida eta baimenak lortzetik, halakoak Administrazio publikoek portuen, isurketen edo beste gai berezi batzuen gainean dituzten eskumenen ondorio direnean.

66. artikulua

Emakidak emango dira, hirugarrenei kalterik egin gabe eta alde zuretik zeuden eskubideak gorabehera.

Epea kasuan kasuko tituluan ezarritakoa izango da.

Erregelamendu bidez emakidek izango dituzten gehieneko epeak ezarriko dira, emakida horiek izango duten erabileren arabera.

Epe horiek inola ere ezin izango dute gainditu hogeita hamar urte.

Azkenetako emakida baten xedea denean mehatze- edo energia-baliabideak ustiatzeko beste emakida batean oinarritutako jarduera, eta beste emakida hori Estatuko Administrazioak eman duenean epe luzeagorako, azkenetako emakidaren titularrak eskubidea izango du, itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeari buruzko beste emakida bat izateko, ustiatze-emakidaren indarraldia amaitzeko geratzen den eperako, eta, gehienez ere, hogeita hamar urterako.

67. artikulua

Emakida-eskabidea ebatzi aurretik, jendaurreko informazioari ekingo zaio eta Estatuko Administrazioak baldintzak eskainiko dizkio eskatzaileari; emakida ez da gauzatuko emakida-eskatzaileak Administrazioak eskaintako baldintzak onartzen ez baditu.

Behin izapideok gauzatuta, kasuan kasuko ebazpena ministerio-sail eskudunak emango du, zuhurtziara, eta ebazpena jendaurrekoa izan beharko da.

Emakidadunak aurkaratzen baditu berak onartu zituen klausulak, Administrazioak ahalmena izango du titulua azkendutzat

deklarar extinguido el título, salvo cuando aquéllas fueren ilegales.

Artículo 68

El otorgamiento de la concesión podrá implicar, según se determine reglamentariamente, la declaración de utilidad pública por el Departamento ministerial competente, a efectos de ocupación temporal o expropiación forzosa de los bienes o derechos afectados por el objeto de aquélla.

Artículo 69

Los bienes y derechos expropiados se incorporarán al dominio público marítimo-terrestre desde su ocupación, en la forma prevista en el título concesional, sin que el concesionario esté obligado al abono del canon de ocupación por los terrenos expropiados a su costa para su incorporación a la concesión.

Artículo 70

Las concesiones serán inscribibles en el Registro de la Propiedad.

Extinguida la concesión, la inscripción será cancelada de oficio o a petición de la Administración o del interesado.

Las concesiones no serán transmisibles por actos intervivos.

En caso de fallecimiento del concesionario, sus causahabientes, a título de herencia o legado, podrán subrogarse en los derechos y obligaciones de aquél en el plazo de un año.

Transcurrido dicho plazo sin manifestación expresa a la Administración concedente, se entenderá que renuncian a la concesión.

No obstante, serán transmisibles las concesiones que sirvan de soporte a la prestación de un servicio público, cuando la Administración autorice la cesión del correspondiente contrato de gestión del servicio, así como las reguladas en la Ley 23/1984, de 25 de junio, de Cultivos Marinos, y las vinculadas a permisos de investigación o concesiones de explotación previstos en la legislación de minas e hidrocarburos.

La transmisión no será eficaz hasta que no

jotzeko, salbu eta klausulok legearen aurkakoak direnean.

68. artikulua

Emakida emateak berarekin ekar dezake, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera, ministerio-sail eskudunak herri-onuraren adierazpena egitea, emakidaren xedeari lotutako ondasunak edo eskubideak behin-behinean okupatzeko edo horien jabetza nahitaez kentzeko.

69. artikulua

Jabetza kendu zaien ondasunak eta eskubideak itsas-lehorreko jabari publikora bilduko dira okupatzen direnetik, emakidatituluaren ezarritako moduan; emakidadunak ez du betebeharririk izango okupazio-kanona ordaintzeko, bere kontura emakidara biltzeko zein lurri jabetza kendu eta lur horiengatik.

70. artikulua

Emakidak Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango dira.

Behin emakida azkenduta, inskripzioa ezereztuko da ofizioz edo Administrazioak nahiz interesdunak hala eskatuta.

Emakidak ezin izango dira eskualdatu inter vivos egintzen bidez.

Emakidaduna hiltzen bada, kausadunak, jarauntsiaren edo legatuaren bidez, haren eskubide eta betebeharretan subrogatu ahal izango dira urtebeteko epean.

Behin epe hori igarota, emakida eman duen Administrazioari esanbidezko adierazpenik egin gabe, ulertuko da emakidari uko egiten diotela.

Hala ere, eskualdatzeko modukoak izango dira, zerbitzu publikoak emateko oinarri diren emakidak, Administrazioak baimentzen duenean zerbitzuaren kasuan kasuko kudeaketa-kontratua lagatzea, bai eta ekainaren 25eko 23/1984 Legean, Itsas Lugintzari buruzkoan, araututakoak, eta mehatzen eta hidrokARBUROEN legeriaren esparruko ikerketa-baimenei edo ustiatze-emakidei lotutakoak ere.

Eskualdaketa ez da eragingarria izango

se haya producido el reconocimiento del cumplimiento de las condiciones establecidas en la concesión.

La constitución de hipotecas y otros derechos de garantía sobre las concesiones transmisibles, así como el embargo de las mismas, deberán ser comunicados previamente a la Administración concedente por la persona o entidad a cuyo favor se constituye el derecho.

Artículo 71

Las concesiones otorgadas para una pluralidad de usos, con instalaciones separables, serán en su caso divisibles, con la conformidad de la Administración concedente y en las condiciones que ésta dicte.

El concesionario podrá renunciar en cualquier momento a la ocupación de la parte del dominio público incluida en el perímetro de la concesión que no resulte necesaria para su objeto, con la conformidad de la Administración concedente.

La declaración de utilidad pública, a efectos del rescate de la concesión, incluso con declaración de urgencia en su caso, corresponderá al Departamento ministerial concedente.

Artículo 72

En todos los casos de extinción de una concesión, la Administración del Estado decidirá sobre el mantenimiento de las obras e instalaciones o su levantamiento y retirada del dominio público y de su zona de servidumbre de protección por el interesado y a sus expensas.

Dicha decisión se adoptará de oficio o a instancia de aquél, a partir del momento anterior al vencimiento que reglamentariamente se determine en caso de extinción normal por cumplimiento del plazo, y en los demás supuestos de extinción en el momento de la resolución del correspondiente expediente.

A partir del momento que se indica en el número anterior, el titular de la concesión constituirá el depósito suficiente para responder de los gastos de levantamiento

harik eta emakidan ezarritako baldintzak bete direla aitortu arte.

Emakida eskualdagarrien gainean hipotekak eta beste berme-eskubide batzuk eratzen direnean, bai eta horiek enbargatzen direnean ere, eskubidea zein pertsonaren edo erakunderen mesedetan eratu eta horrek aldez aurretik komunikatu beharko dio hori emakida eman duen Administrazioari.

71. artikulua

Erabilera anitzeko emandako emakidak, instalazio banangarriak dituztenak, hala denean, banantzeko modukoak izango dira, emakida eman duen Administrazioaren adostasunarekin eta horrek ezarritako baldintzetan.

Emakidadunak, edozein unetan, emakida eman duen Administrazioaren adostasunarekin, uko egin ahal izango dio emakidaren perimetrora bildutako jabari publikoaren zatia okupatzeari, zati hori ez denean beharrezkoa emakidaren xederako.

Emakida eman duen ministerio-sailak adierazi behar du herri-onura, emakidaren erreskate-ondoreetarako, baita presako adierazpenarekin ere, hala denean.

72. artikulua

Emakida azkentzen den kasu guztietan, Estatuko Administrazioak erabakiko du, interesdunak obrei nahiz instalazioei eutsi behar dien ala horiek bere kontura jaso eta jabari publikotik nahiz horren babes-zortasuneko gunetik batu behar dituen.

Erabaki hori ofizioz edo hark hala eskatuta hartuko da, epemuga iritsi baino lehenago erregelamendu bidez ezarritako unean, epea betetzearen ondoriozko azkentze arruntaren kasuan, eta gainerako azkentze-kasuetan, kasuan kasuko espedientearen ebazteko unean.

Aurreko paragrafoan aipatu unetik aurrera, emakidaren titularrak behar besteko gordailua eratu du gastuei aurre egiteko; gastu horiek izango dira, obrak edo

de las obras o instalaciones y retirada fuera del dominio público marítimo-terrestre y su zona de servidumbre de protección, o de reparación de aquéllas, de acuerdo con la resolución adoptada y la tasación ejecutoria señalada por la Administración y a resultas de la liquidación que proceda.

En caso de que se opte por el mantenimiento, en la fecha de extinción de la concesión revertirán a la Administración del Estado gratuitamente y libres de cargas todas las obras e instalaciones.

La Administración podrá continuar la explotación o utilización de las instalaciones, según se determine reglamentariamente.

CAPITULO VI.

Disposiciones comunes a autorizaciones y concesiones

Artículo 73

La Administración competente aprobará pliegos de condiciones generales para el otorgamiento de concesiones y autorizaciones.

Artículo 74

Las solicitudes acompañadas del proyecto básico o de construcción, conforme a lo previsto en el artículo 42, y del resguardo acreditativo de la constitución de las fianzas que en su caso correspondan, se tramitarán en la forma que se determine reglamentariamente, con las fases de información pública, de informe de los Organismos que deban ser consultados, y de confrontación previa del proyecto.

Reglamentariamente se regularán los otorgamientos a extranjeros, para los cuales podrán establecerse requisitos especiales o adicionales, condicionados a la prueba de reciprocidad en sus países de origen para los nacionales españoles.

Se exceptúan los nacionales de los Estados miembros de la Comunidad Económica Europea a reserva de las limitaciones que por razones de orden público, seguridad y salud pública

instalazioak jasotzeko eta itsas-lehorreko jabari publikotik eta horren babes-zortasuneko gunetik batzeko, edo obra nahiz instalazio horiek konpontzeko, Administrazioak hartutako ebazpenarekin eta betearazpenerako ezarritako tasazioarekin bat etorriz, eta bidezkoa den likidazioaren ondoreetarako.

Obra eta instalazio horiei eustearen alde egiten bada, emakida azkentzeko datan, obra eta instalazio guztiak dohainik eta zamarik gabe lehengoratu dira Estatuko Administrazioa.

Administrazioak jarraitu ahal izango du instalazioak ustiatzen edo erabiltzen, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

VI. KAPITULUA

Xedapen erkideak baimenei eta emakidei dagokienez

73. artikulua

Administrazio eskudunak baldintza orokorren agiriak onetsiko ditu emakidak eta baimenak emateko.

74. artikulua

Eskabideak aurkeztuko dira oinarrizko proiektuarekin edo eraikuntza-proiektuarekin batera, 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta hala denean eratu behar diren fidantzen egiaztatze-gordekinarekin batera, eta izapidetuko dira erregelamendu bidez ezarriko den moduan, jendaurreko informazioaren, kontsultatu beharreko erakundeetako txostenen eta alde zurretik proiektua alderatzearen faseak gauzatuta.

Erregelamendu bidez arautuko dira atzerritarrei begira emandako emakida eta baimenak; horiei begira betekizun bereziak edo gehigarriak ezarri ahal izango dira, elkarrekotasun-froga gauzatuz, atzerritar horien jatorrizko herrialdeetan Espainiako naziotasuna duten herritarren egoerari dagokionez.

Salbuetsita geratzen dira Europako Ekonomia Erkidegoko estatu kideetako naziotasuna duten herritarrek, kalterik egin gabe ordena publikoaren, segurtasunaren eta osasun publikoaren arrazoiengatik

reglamentariamente se establezcan.

En el otorgamiento de las solicitudes se observará el orden de preferencia que se establezca en las normas generales y específicas correspondientes.

En su defecto, serán preferidas las de mayor utilidad pública.

Sólo en caso de identidad entre varias solicitudes se tendrá en cuenta la prioridad en la presentación.

Las concesiones y autorizaciones en el dominio público marítimo-terrestre se otorgarán respetando lo previsto en los instrumentos de planificación del territorio, o en el planeamiento urbanístico, cualquiera que sea su denominación y ámbito, que afecten al litoral, salvo que no proceda su otorgamiento por razones de interés público o cuando atenten a la integridad del dominio público marítimo-terrestre.

En el supuesto que las obras objeto de concesión o actividades o instalaciones objeto de autorización no estén previstas en los instrumentos de planificación antes citados y no se opongan a sus determinaciones, o cuando éstos no existan, se solicitará informe a la Comunidad Autónoma y al Ayuntamiento en cuyos ámbitos territoriales incidan, informes que no serán vinculantes para la Administración General del Estado.

Artículo 75

La Administración podrá convocar concursos para el otorgamiento de concesiones y autorizaciones en el dominio público marítimo-terrestre.

Si la convocatoria del concurso se produjese durante la tramitación de una solicitud de concesión o autorización, el interesado tendrá derecho, en caso de no resultar adjudicatario del título, al cobro de los gastos del proyecto, en la forma que se determine reglamentariamente.

El concurso podrá declararse desierto si ninguna de las ofertas presentadas reúne las condiciones adecuadas.

erregelamendu bidez ezartzen diren mugei.

Eskabideak onartzeko kontuan hartuko da arau orokorretan eta kasuan kasuko arau berezietan ezarritako lehentasun-hurrenkera.

Araurik izan ezean, lehentasuna izango dute herri-onura handienekoak.

Eskabide batzuk berdinak izanez gero bakarrik hartuko da kontuan aurkezteneko lehentasuna.

Itsas-lehorreko jabari publikoko emakidak eta baimenak emango dira lurraldearen plangintzarako tresnetan edo hirigintza-plangintzan ezarritakoa errespetatuz, horien izena edo esparrua edozein dela, baldin eta itsasertza ukitzen badute, non ez den bidezkoa emakida eta baimen horiek ematea, interes publikoko arrazoiengatik, edo horiek itsas-lehorreko jabari publikoaren osotasunaren aurka egiten dutenean.

Emakidaren xede diren obrak edo baimenaren xede diren jarduera nahiz instalazioak ez direnean jaso arestian aipatu plangintza-tresnetan eta horien zehaztapenen aurka ez doazenean, edo halako tresnarik ez dagoenean, emakida edo baimen horiek zein autonomia-erkidegoko eta udaleko lurralde-esparruak ukitu eta autonomia-erkidego eta udal horiei txostena eskatuko zaie; dena den, txosten horiek ez dira lotesleak izango Estatuko Administrazio Orokorrarentzat.

75. artikulua

Administrazioak lehiaketak deitu ahal izango ditu, itsas-lehorreko jabari publikoan emakidak eta baimenak emateko.

Lehiaketaren deialdia egiten bada emakida- edo baimen-eskabide baten izapidea egin bitartean, interesdunak eskubidea izango du, tituluaren emakidadun bihurtzen ez bada, proiektuaren gastuak kobratzeko, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

Lehiaketa ezerezean utzi ahal izango da, baldin eta aurkeztutako eskaintzetarik bat berak ere ez baditu betetzen baldintza egokiak.

Artículo 76

En todo título de otorgamiento, que tendrá carácter de público, se fijarán las condiciones pertinentes y, en todo caso, las siguientes:

- a) Objeto y extensión de la ocupación.
- b) Obras o instalaciones a realizar por el adjudicatario con referencia al proyecto respectivo y plazo de comienzo y terminación de aquéllas.
- c) Plazo de otorgamiento y posibilidad de prórroga, si procede.
- d) Cánones y tasas a abonar por el adjudicatario.
- e) Régimen de utilización, privada o pública, incluyendo en su caso las tarifas a abonar por el público con descomposición de sus factores constitutivos como base de futuras revisiones.
- f) En los casos de utilización lucrativa, obligación del adjudicatario de facilitar cuanta información le solicite la Administración sobre los resultados económicos de la explotación.
- g) Condiciones que, como resultado de la evaluación de efectos, se consideren necesarias para no perjudicar al medio.
- h) Señalización marítima y de las zonas de uso público.
- i) Obligación del adjudicatario de mantener en buen estado el dominio público, obras e instalaciones.
- j) Obligación del adjudicatario de constituir un depósito suficiente para los gastos de reparación o levantamiento y retirada, parcial o total, de las obras e instalaciones, a su costa, a la extinción del título correspondiente, salvo decisión en contrario de la Administración competente.
- k) Causas de caducidad, conforme a las establecidas en el artículo 79.
- l) Prescripciones técnicas al proyecto, en su caso.

Artículo 77

Las autorizaciones y concesiones podrán ser modificadas:

- a) Cuando se hayan alterado los supuestos

76. artikulua

Emate-titulu orok, izaera publikoa izanik, egoki diren baldintzak finkatuko ditu, eta, edozein kasutan, hurrengoak:

- a) Okupazioaren xedea eta hedadura.
- b) Emakidadunak egin behar dituen obra edo instalazioak, erreferentzia eginez kasuan kasuko proiektuari eta obra nahiz instalazioak hasteko eta amaitzeko epeari.
- c) Emate-epea eta epe hori hedatzeko aukera, hori bidezkoa bada.
- d) Emakidadunak ordaindu beharreko kanonak eta tasak.
- e) Erabilera-araubidea, pribatua edo publikoa, hala denean, jendeak ordaindu beharreko tarifak barneratuz, tarifa eratzeko osagaiak bananduta, bihar etziko berrikuspenen oinarri izateko.
- f) Irabazteko asmoa duten erabileren kasuan, emakidadunak duen betebeharra, Administrazioak eskatutako informazio guztia aurkezteko, ustiapenaren emaitza ekonomikoen inguruan.
- g) Ondoreen ebaluazioa dela bide, inguruari kalterik ez eragiteko beharrezkotzat jotzen diren baldintzak.
- h) Itsas seinaleak eta erabilera publikoko guneetako seinaleak.
- i) Emakidadunaren betebeharra, jabari publikoa, obrak eta instalazioak egoera onean edukitzeko.
- j) Emakidadunaren betebeharra, behar besteko gordailua eratzeko, bere kontura aurre egiteko obrak eta instalazioak, oso osoan edo zati batean, konpontzeko edo horiek jaso eta batzeko gastuei, kasuan kasuko titulua azkentzen denean, salbu eta Administrazio eskudunak aurkako erabakia hartzen duenean.
- k) Iraungitze-arrazoia, 79. artikuluan ezarritakoekin bat etorritik.
- l) Proiektuaren teknika-xedapenak, hala denean.

77. artikulua

Baimenak eta emakidak aldarazi ahal izango dira:

- a) Horiek gauzatzeko erabakigarri ziren

determinantes de su otorgamiento.

- b) En casos de fuerza mayor a petición del titular.
- c) Cuando lo exija su adecuación a los planes o normas correspondientes.

Sólo en el tercer caso, el concesionario perjudicado tendrá derecho a indemnización, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 o supletoriamente en la legislación general de expropiación forzosa.

Artículo 78

El derecho a la ocupación del dominio público se extinguirá por:

- a) Vencimiento del plazo de otorgamiento.
- b) Revisión de oficio en los casos previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo.
- c) Revocación por la Administración cuando se trate de autorizaciones.
- d) Revocación de las concesiones por alteración de los supuestos físicos existentes en el momento del otorgamiento, cuando no sea posible la modificación del título.
- e) Renuncia del adjudicatario, aceptada por la Administración siempre que no tenga incidencia negativa sobre el dominio público o su utilización o cause perjuicios a terceros.
- f) Mutuo acuerdo entre la Administración y el adjudicatario.
- g) Extinción de la concesión de servicio público del que el título demanial sea soporte.
- h) Caducidad.
- i) Rescate.

Extinguido el derecho a la ocupación del dominio público, la Administración no asumirá ningún tipo de obligación laboral del titular de la actividad afectada.

El plazo para notificar la resolución del procedimiento por el que se declare la extinción del derecho a la ocupación del dominio público marítimo-terrestre será de

egoerak aldatzen direnean.

- b) Ezinbesteko kasuak daudenean, titularrak hala eskatuta.
- c) Hori beharrezkoa denean, kasuan kasuko planekin edo arauekin bat etortzeko.

Hirugarren kasuan bakarrik, emakidadun kaltetunak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, 89. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri edo, modu ordeztailan, nahitaez jabetza kentzeko legeria orokorrean xedatutakoarekin bat etorri.

78. artikulua

Jabari publikoa okupatzeko eskubidea azkenduko da:

- a) Emate-epea mugaeguneratzeagatik.
- b) Ofizioz berrikusteagatik, Administrazio Prozeduraren Legeak ezarritako kasuetan.
- c) Administrazioak ezeztatzeagatik, baimenen kasuan.
- d) Emakidak ezerezteagatik, emakida emateko unean zeuden egoera fisikoak aldatzearen ondorioz, titulua ezin aldarazi daitekeenean.
- e) Emakidadunak uko egiteagatik, Administrazioak hori onartzen duenean, betiere, jabari publikoari edo horren erabilerari ondore negatiborik sortzen ez bazaizkie edo hirugarrenei kalteak eragiten ez bazaizkie.
- f) Administrazioaren eta emakidadunaren arteko adostasunarengatik.
- g) Zerbitzu publikoaren emakida azkentzeagatik, demanio-titulua denean horren oinarri.
- h) Iraungitzeagatik.
- i) Erreskatatzeagatik.

Behin jabari publikoa okupatzeko eskubidea azkenduta, Administrazioak ez du bere gain inolako betebeharririk hartuko, ukitutako jardueraren titularraren lan-harremanei dagokienez.

Itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko eskubidearen inguruko azkentzea adierazi behar duen prozeduraren ebazpena jakinarazteko epea hamabi hilabetekoa

doce meses.

Artículo 79

La Administración, previa audiencia del titular, declarará la caducidad en los siguientes casos:

- a) No iniciación, paralización o no terminación de las obras injustificadamente durante el plazo que se fije en las condiciones del título.
- b) Abandono o falta de utilización durante un año, sin que medie justa causa.
- c) Impago del canon o tasas en plazo superior a un año.
- d) Alteración de la finalidad del título.
- e) Incumplimiento de las condiciones que se hubieran establecido como consecuencia de la previa evaluación de sus efectos sobre el dominio público marítimo-terrestre.
- f) El incumplimiento de las condiciones b) y d) del número 3 del artículo 63 para las extracciones de áridos y dragados.
- g) Privatización de la ocupación, cuando la misma estuviere destinada a la prestación de servicios al público.
- h) Invasión del dominio público no otorgado.
- i) Aumento de la superficie construida, volumen o altura máxima en más del 10 por 100 sobre el proyecto autorizado.
- j) No constitución del depósito requerido por la Administración para la reparación o el levantamiento de las obras e instalaciones.
- k) Obstaculización del ejercicio de las servidumbres sobre los terrenos colindantes con el dominio público o la aplicación de las limitaciones establecidas sobre la zona de servidumbre de protección y de influencia.
- l) En general, por incumplimiento de otras condiciones cuya inobservancia esté expresamente sancionada con la caducidad en el título correspondiente, y de las básicas o decisorias para la adjudicación, en su caso, del concurso convocado según el artículo 75.

izango da.

79. artikulua

Administrazioak, aldez aurretik titularra entzunda, iraungitzea adieraziko du, hurrengo egoerak gertatzen direnean:

- a) Justifikaziorik gabe obrak ez hastea, horiek geldiaraztea edo horiek ez amaitzea, tituluaren baldintzetan ezarritako epean.
- b) Urtebetez bertan behera uztea edo ez erabiltzea, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.
- c) Kanona edo tasak ez ordaintzea, urtebetetik gorako epean.
- d) Tituluaren xedea aldatzea.
- e) Baldintzak ez betetzea, baldintza horiek ezarri direnean aldez aurretik egin den ebaluazioan, emakidek edo baimenek itsas-lehorreko jabari publikoan dituzten ondoreei dagokienez.
- f) Agregakinak ateratzeko eta dragatzeentzako 63. artikuluko 3. paragrafoaren b) eta d) idatz-zatietako baldintzak ez betetzea.
- g) Okupazioaren pribatizazioa, horren destinoa jendeari zerbitzuak ematea denean.
- h) Eman ez den jabari publikoa hartzea.
- i) Eraikitako azalera, gehieneko bolumena edo altuera 100eko 10ean gehitzea, baimendutako proiektuari dagokionez.
- j) Obrak eta instalazioak konpontzeko edo horiek jasotzeko Administrazioak agindutako gordailua ez eratzea.
- k) Jabari publikoaren mugakide diren lurretan zortasunen egikaritzea eragozteia edo babes-zortasuneko eta eraginpeko gunearen gainean ezarritako mugak aplikatzea.
- l) Orokorrean, beste baldintza batzuk betetzen ez direnean, ez-betetze horiek esanbidez zehatzen direnean kasuan kasuko titulua iraungiz, eta, hala denean, 75. artikulua araberako deitutako lehiaketa gauzatzeari dagokionez, oinarritzakoak edo erabakigarriak diren baldintzak betetzen ez

En los demás supuestos de incumplimiento o en caso de infracción grave conforme a la presente Ley, la Administración podrá declarar la caducidad, previa audiencia del titular y demás trámites reglamentarios.

Artículo 80

Incoado el expediente de caducidad la Administración podrá disponer la paralización inmediata de las obras, o la suspensión del uso y explotación de las instalaciones, previa audiencia en este último caso del titular afectado y una vez desestimadas sus alegaciones.

La declaración de caducidad comportará la pérdida de la fianza si la hubiere.

Para la suspensión de la ejecución de la caducidad, el interesado quedará obligado al depósito previo importe que se fije en cada caso con arreglo a los criterios que se establezcan reglamentariamente.

Artículo 81

El plazo de vencimiento será improrrogable, salvo que en el título de otorgamiento se haya previsto expresamente lo contrario, en cuyo caso, a petición del titular y a juicio de la Administración competente, podrá ser prorrogado siempre que aquél no haya sido sancionado por infracción grave, y no se superen en total los plazos máximos reglamentarios.

A la extinción de la autorización o concesión, la Administración del Estado, sin más trámite, tomará posesión de las instalaciones pudiendo obtener de las Empresas suministradoras de energía eléctrica, agua, gas y telefonía la suspensión del suministro.

TITULO IV.

Régimen económico-financiero de la utilización del dominio público marítimo-terrestre

CAPITULO I. Financiación de obras y otras actuaciones

Artículo 82

direnean.

Gainerako ez-betetze kasuetan edo lege honen arabera arau-hauste astuna egiten denean, Administrazioak iraungitzea adierazi ahal izango du, aldez aurretik titularra entzunda eta erregelamendu bidez ezarritako izapideak eginda.

80. artikulua

Behin iraungitze-espeditentea hasita, Administrazioak agindu ahal izango du obrak berehala geldiaraztea, edo instalazioen erabilera eta ustiapena etetea; azken kasu horretan, aldez aurretik ukitutako titularra entzun beharko du eta horren alegazioei gaitziritzia eman beharko die.

Iraungitze-adierazpenak berarekin ekarriko du fidantza galtzea, halakorik balego.

Iraungitzearen betearazpena eteteko, interesdunak gordailua gauzatu beharko du, aldez aurretik ezarritako zenbatekoaren arabera, erregelamendu bidez ezarritako irizpideekin bat etorritik.

81. artikulua

Mugaeguneratzearen epea luzaezina izango da, salbu eta emakida edo baimena emateko tituluan esanbidez aurkakoa adierazi denean; kasu horretan, titularrak hala eskatuta eta Administrazio eskudunak erabakitakoaren arabera, mugaeguneratzearen epea luzatu ahal izango da, betiere, titularra ez bada zehatu arau-hauste astuna egiteagatik, eta erregelamendu bidez ezarritako gehieneko epeak osotasunean gainditzen ez badira.

Baimena edo emakida azkendu ondoren, Estatuko Administrazioak, beste inolako izapiderik gabe, instalazioen gaineko edukitza eskuratuko du, eta lortu ahal izango du elektrizitatea, ura, gasa eta telefonía hornitzeko enpresek eskainitako hornidura etetea.

IV. TITULUA

Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilerari buruzko ekonomia- eta finantza-araubidea

I KAPITULUA. Obren eta bestelako jardueren finantzaketa

82. artikulua

Las obras de competencia del Estado se financiarán con cargo a los correspondientes créditos presupuestarios y, en su caso, con las aportaciones de las Comunidades Autónomas, Corporaciones Locales, Organismos internacionales y particulares.

Artículo 83

Cuando la financiación sea compartida, la aportación correspondiente a cada partícipe se fijará de común acuerdo, detallándose la cuantía y modalidad de los compromisos asumidos.

Estos acuerdos podrán referirse también a la elaboración del planeamiento y de los proyectos de obras correspondientes.

CAPITULO II.

Cánones y tasas

Artículo 84

Toda ocupación o aprovechamiento del dominio público marítimo-terrestre en virtud de una concesión o autorización, cualquiera que fuere la Administración otorgante, devengará el correspondiente canon en favor de la Administración del Estado, sin perjuicio de los que sean exigibles por aquélla.

Están obligados al pago del canon, en la cuantía y condiciones que se determinan en esta Ley, los titulares de las concesiones y autorizaciones antes mencionadas.

La base imponible será el valor del bien ocupado y aprovechado, que se determinará de la siguiente forma:

a) Por ocupación de bienes de dominio público marítimo-terrestre, la valoración del bien ocupado se determinará por equiparación al valor asignado a efectos fiscales a los terrenos contiguos a sus zonas de servidumbre, incrementado en los rendimientos que sea previsible obtener en la utilización de dicho dominio.

En el caso de obras e instalaciones el valor material de las mismas.

En los supuestos de obras e instalaciones en el mar territorial destinadas a la investigación o explotación de recursos

Estatuaren eskumeneko obrak finantzatu dira aurrekontuen kasuan kasuko kredituen kontura eta, hala denean, autonomia-erkidegoen, toki-korporazioen, nazioarteko erakundeen eta subjektu pribatuen ekarpenekin.

83. artikulua

Baterako finantzaketa dagoenean, partaide bakoitzari dagokion ekarpena adostasunez ezarriko da, zenbatekoa eta hartutako konpromiso-modalitateak zehaztuz.

Akordio horiek kontuan hartu ahal izango dituzte, berebat, kasuan kasuko obren inguruan egin beharreko plangintza eta proiektuak.

II. KAPITULUA.

Kanonak eta tasak

84. artikulua

Emakida edo baimen baten ondorioz, itsas-lehorreko jabari publikoaren gainean egiten den okupazio edo aprobetxamendu orok Estatuko Administrazioaren aldeko kanona sortuko du, kontuan hartu gabe zein Administraziok eman duen emakida edo baimena, eta horrek galda ditzakeen kanonak gorabehera.

Kanona ordaintzeko betebeharra dute, lege honetan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan, arestian aipatu emakiden eta baimenen titularrek.

Zerga-oinarria izango da okupatu eta aprobetxatutako ondasunaren balioa, modu honetara zehaztuko dena:

a) Itsas-lehorreko ondasunak okupatzeagatik, okupatutako ondasunaren balioespena egingo da, ondasun horietako zortasun-guneen ondoko lurrei zerga-ondoretarako eratziki zaien balioa aintzat hartuta, eta balio horri gehituta jabari hori erabiltzearen ondorioz aurreikusten diren etekinak.

Obren eta instalazioen kasuan, aintzat hartuko da horien balio materiala.

Lurralde-itsasoan egiten diren obra eta instalazioen kasuan, halakoan xedea mehatze- eta energia-baliabideak ikertzea

mineros y energéticos se abonará un canon de 0,006 euros por metro cuadrado de superficie ocupada.

b) Por aprovechamiento de bienes de dominio público marítimo-terrestre, el valor del bien será el de los materiales aprovechados a precios medio de mercado.

En el caso de cultivos marinos la base imponible del canon de ocupación y aprovechamiento del dominio público marítimo-terrestre se calculará con arreglo a las siguientes reglas:

a) Se considerará como valor de los terrenos ocupados la cantidad de 0,006 euros por metro cuadrado.

b) En cuanto a los rendimientos que se prevé obtener en la utilización del dominio público marítimo-terrestre, se considerarán los siguientes coeficientes:

